

Normaltasuna nagusi greba orokorrean

Jarraipen gutxiko greba orokorra
bizi zen irailaren 29an

Asteazken normal bat igaro genuen irailaren 29an herrian. Ohiko irudiak izan zituen Lasarte-Oriako greba orokorraren egunean. Komertzio, banketxe eta taberna gehienak irekiak mantendu ziren egun osoan zehar. Azoka normaltasun osoz eta jendez gainezka ikusi genuen eguraldi paregabearekin esker. Piketeen arrastorik ere ez zen sumatu.

Estatu espainiarrean deitutako greba orokorrak itzal laburra izan zuen Euskal Herrian. Gure autonomia erkidegoan eragin gutxi izan zuen, eta herrialdeei begiruta, Gipuzkoan txikiena.

Eguerdiaren Donostian grebaren alde zeuden sindikatuek deitutako manifestaldian 2.000 pertsonen parte hartu zuten sindikatu hauek eman-dako datuen arabera.

Sindikatuaren zatiketa

CC.OO, UGT, CNT eta ESK sindikatuek deitu zuten irailaren 29ko grebara. Gogoratu behar da joan den ekainaren 29rako Hego Euskal Herri mailako greba orokor deialdia egin zuela Euskal Herriko gehiengo sindikalak; ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta

Hiruk, langileen eskubideak defenditzeko eta lan erreforma salatzeko asmoz. Haien artean gaurko deialdia ESK-k baino ez du babestu.

Jarraipen gutxiko greba

Lasarte-Oriako gutxi batzuk izan ziren grebarekin bat egin zutenak. Hauetako batzuk Michelin enpresako langileak. Hala ere, herrian ez zen gehiegi nabaritu. Grebarekin bat egindakoak, 12:00etan Donostiara deituta zeuden.

Autobusak normaltasun osoz ikusi genituen herrian zehar. Euskotrenekin aldi, ez zen berdina gertatu. Pertsona ugari geltokira hurbildu eta sartu bezala atera egiten ziren. Goizeko, 09:59ko topoa ez zen atera, eta 10:30etatik aurrera 13:29ak arte ez zen gure herritik toporik atera ezta ailegatu ere.

Sindikatuaren arabera industriari eta garraiobideetan eman zen nabariaren lan-geldialdia. Eta Lasarte-Oria horren isla izan zen.

Balorazio garaia

Datuak ikusita, sindikatuek onartu behar izan dute Gipuzkoan greba orokorrak "jarraipen apala" izan duela. •



Normaltasuna izan zen nagusi asteazkenean herrian. Azoka jendez bete zen eguraldiari esker, eta ez zen postu gutxiago izan. Beheko argazkian, CNT sindikatuko auto informatiboa ikusten dugu. Goizean goiz igaro zen herritik, baina eguna aurrera joan ahal izan zen berriro aldarrikapenik entzun Lasarte-Oriako kaleetan.



Zikloturismoa,
Frantzia iparraldeko
eta Belgikako
harrizko bide
gogorretan /4-5

KIROLA /6

Ostadarrek
antolatzen duen
XXVIII. Herriko
Areto-futbol
txapelketa gaur
hasiko da



Bihar ospatuko
den VII. Akordeo
Jaialdia aurkeztu
zuten Zero Settek
eta Udalak /6

SUGATE SUKALDEAK



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 36 14 71
Lasarte-Oria
www.sugate.net

Neure kabuz



Itsu. Mutu. Gor

Kuriositate handiz behatzen dut azken aste hauetan nire ingurua. Euskal Herrian bizitzen ari garen egoera berriaz mintzo naiz, batik bat. Eta sektore ezberdinetatik honi emandako erantzunak aztertuz, aspaldi ikusiriko filme baten argumentua etorri zait burura: Ana Sullivan-en miraria, Arthur Penn-ek zuzendua (1962).

Bertan, jaiotzetik itsua, mutua eta gorra den neskatila baten istorioa kontatzen da (Hellen Keller), bere inguruko errealitatearekin, pertsonekin eta gertakariekin inolako kontakturik ez duena; funtsean, munduan isolaturik bizi da Hellen, Ana Sullivan heltzen den arte.

Gaur egun, entzun, ikusi eta ulertu ezin duen ugari ere badugu gure artean. Hala, hobeki esanda, eta hau litzateke Hellen Keller-ekiko ezberdintasun nagusia: entzun, ikusi eta ulertu nahi ez duen ugari. Komen aitzakiak behin eta berriro errepikatuta haien lekuan oso eroso daudenak; hauteskunde bezperatan, aldaketa baten aldeko interesik ez dutenak; proposamen berri ororen aurrean itsu-mutu-gortzen direnak, eta hauetxek zigortzen dituztenak.

Zentzumenak inoiz baino biziago martxan jartzeko prest dagoenik ere bada, ordea. Errealitatea hauteman bakarrik ez, lupaz zorrozki aztertzen eta alternatibei erantzun bat ematen saiatzen ari denik. Begien bidez entzuten, ahoaz ikusten eta belarriez dastatzen ikasten ari denik.

Eta guztiok jakin badakigu, Sullivan-ek zekien moduan, nahiz eta esforzu handiz, azkenik, itsu-mutu-gorrek ere haien isolamendutik gizarterat irteteko aukera badutela.

Taxido Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Eneko

Zorionak zure zortzigarren urtebetetze egunean. Muxu handi bat familiaren partetik.



Asier

Zorionak zure lehen urtebetetzearen familiaren partetik. Muxu handi bat!



Eneko

Zorionak potxolo zure 2. urtebetetzean. Bi muxu haundi, Ane, aita eta amatxoren partetik.



Julen eta Xabat

Zorionak gure bi mutiko haundiei, zuen 4. eta 7. urtebetetzean!!! Ondo-ondo pasa!!! Ana eta amatxi.

Hiribusaren ordutegia

	Antrisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
	7:45	7:55	8:00	8:05
	8:15	8:25	8:30	8:35
	8:45	8:55	9:00	9:05
	9:15	9:25	9:30	9:35
	9:45	9:55	10:00	10:05
	10:15	10:25	10:30	10:35
	10:45	10:55	11:00	11:05
	11:15	11:25	11:30	11:35
	12:15	12:25	12:30	12:35
	12:45	12:55	13:00	13:05
	13:15	13:25	13:30	13:35
	13:45	13:55	14:00	14:05
	14:15	14:25	14:30	14:35
	14:45	14:55	15:00	15:05
	15:15	15:25	15:30	15:35
	16:15	16:25	16:30	16:35
	16:45	16:55	17:00	17:05
	17:15	17:25	17:30	17:35
	17:45	17:55	18:00	18:05
	18:15	18:25	18:30	18:35
	18:45	18:55	19:00	19:05
	19:15	19:25	19:30	19:35
	19:45	19:55	20:00	20:05
	20:15	20:25	20:30	20:35

LANEGUNAK



943.361.741

www.tsst.info



Lasarte-Oria

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
 DYA ... 943 464622
 Gurutze Gorria ... 943 363953
 Udaltzainak ... 943 362442
 Ertzaintza ... 943 288888
 SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
 Euskarako Zerbitzua 943 376184
 Kiroldegia ... 943376182
 Kulturetxea ... 943376181
 Zerbitzu Sozialak ... 943376179
 KIUB ... 943361605
 Udal euskaltegia ... 943361621

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Bi logelako etxe bat alokatzen da 700 euroren truke. Harremanetarako telefono zenbakia: 627 995 760.

• Pisu konpartituan gela alokatzen dut Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 600 612 085.

• Logela alokatzen da Lasarteko erdigunean. 275 euro. Deitu 664 427 082 telefonora 18:00etatik aurrera.

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako telefono zenbakia: 628 904 130.

Lan-eskaintzak

• Emakume euskaldun bat behar dugu adineko pertsona bat zaintzeko, astean zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gaurtarako. Harremanetarako telefonoa: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

Lan-eskariak

• Lasarteko neska gaztea eskeintzen da kurtsuon zehar lana egiteko, umeak zaintzen edo klaseak ematen. Harremanetarako telefonoa, 677 823 141.

• Andre bat eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Euskaraz badaki. Harremanetarako telefonoa, 618 097 676.

• Ingelesa ikasteko klase partikularrak ematen ditut astelehenetik larunbatera. Harremanetarako telefonoa: 693 601 222.

• Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

• Gai ezberdinetako, euskara, lenguaia, matematika, ingelesa,.... klaseak emango nituzte. Harremanetarako telefono zenbakia: 943 362 532 edo 693 601 222.

Oharra jartzeko:

btxinxarri@btxinxarri.info • www.btxinxarri.iragarkilaburrak.com
 www.btxinxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 1

De Miguel, Kale Nagusia 32
 Tel.: 943 371 151

Larunbata, 2

De Miguel, Kale Nagusia 32
 Tel.: 943 371 151

Igandea, 3

De Miguel, Kale Nagusia 32
 Tel.: 943 371 151

Astelehena, 4

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
 Tel.: 943 361774

Asteartea, 5

Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361529

Asteazkena, 6

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
 Tel.: 943 363549

Osteguna, 7

Urbistondo, San Frantzisko I
 Tel.: 943 366567

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero

Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Jaiotzak

• June Mesa Fernandez, irailaren 20ean



Heriotzak

• Estanislao Francisco Dominguez Martin, irailaren 29an 83 urte zituela.



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Zero Sette akordeoi orkestra, Lasarte-Oriako Udala eta Kultur etxeko ordezkariek VII. Akordeoi jaialdiaren aurkezpena.

Estilo desberdinetako akordeoi jaialdia bihar

Zero Sette akordeoi orkestrak eta Udalak VII. Akordeoi Jaialdia aurkeztu zuten asteazkenean

ikusleen gustuko jaialdia izango dela larunbatekoa esan zuen Jone Altunak, Kultura batzordeko burua asteazkenean, Manuel Lekuona kultur etxeko hitaldi aretoan burutu zen VII. akordeoi jaialdiaren aurkezpena.

Bertan *Zero Sette* akordeoi Orkestrako zuzendariak, Elias Goikouriak eta zuzendari laguntzaileak, Maite Janeirok Lasarte-Oriako Udaleko Kultura batzordeko burua den Jone Altunarekin eta kulturetxeko gerentearekin, Xabier Goitiarekin batera bihar, larunbata arratsaldeko 19:30ean Manuel Lekuona kultur etxean ospatuko den jaialdiaren berri eman zuten.

Elias Goikouriak orkestrako zuzendariak 7. edizio hau ikusleentzat atsegina izatea espero dutela adierazi zuen, "akordeoi talde osoak lan handia egin baitu guztia antolatze eta maitasun handiz, gainera."

Taldeak

Kultura batzordeko buruak, Jonek jaialdian parte hartzen duten taldeei buruz mintzo zen. *Duo Paris-Moscouren*

curriculum-a eta akordeoiaren erabileraren garrantzia azpimarratu zituen.

Era berean, *Accordion in Modern* taldearen jazz estilora garapena aipatu zuen eta haien errepertorioa gustu desberdinetako ikusleen gogoko dela jakin arazi zuen.

Eta herriko taldearentzat, laudorio hitzak besterik ez zituen izan, "Nazioarte mailan oso ezaguna den taldea dugu eta herriari ospea ematen diona. Harro sentiarazten gaituen taldea da," adierazi zuen.

Abestien berezitasunak

Elias Goikouriak, ostean, zuzentzen duen orkestrak eskainiko dituen hiru obren berezitasunak azaldu zituen.

"*Escualo*, *Piazzollaren* tango ezagunean, moldaketa bat egin dugu eta solista bat eta marinba entzuteko aukera egongo da abesti honetan," aipatu zuen.

Duke Ellington in accordion lanean, "egile amerikarren bi abesti joko ditugu eta jazz kutsua emango diogu gure emanaldiari" azaldu zuen.

Azkenik, Iñigo Peña egile lasarteoriatarren *Dharma* lana joko du orkestrak.

Dharma hitza sasnkritotik datorrela eta bizitzaren alaitasuna adierazi nahi duela azaldu zuen orkestrako zuzendariak.

Perkusioa

Era berean, obra erritmikoa dela azpimarratu zuen, "perkusio asko erabiltzen du egileak. Eta kutsu etniko eta espiritual nabarmena da abestiaren momentu batzuetan."

Abesti honetan, sorpresa bat dagoela ere aipatu zuen, "Donostiako Easo Araoz Gazte abesbatzako hiru neskek parte hartzen dute abestian. Haien doinuak ez du hitzik eta, era honetara, haien ahotsa beste instrumentu bat da."

Jarraipena eman

Honetaz guztiaz gain, Elias Goikouriak Zero Sette orkestrak hurrengo urtean VIII. jaialdia ospatzeko lan egingo duela aipatu zuen.

Honen harira, Jonek "herriarentzat jaialdi garrantzitsua da hau eta nazioarte mailan izena duena. Horregatik, Udalak mantendu behar den jaialdia dela uste du," adierazi zuen Kulturako batzorde buruak.

Sarrerak

Jaialdi honetako sarrerak 3 euroko b.atik 20:00etara eskuratuko ahalko dituzte interesatuek gaur eta bihar kontzertua hasi baino lehen. •

GOIEGI IBARREKO BOE ZOZKETA

Gaur egingo da zozketa Kultur etxean

Lasarte-Oriako Udalak Goiegi Ibarreko Babes Ofizialeko 76 Etxebizitzaren zozketa gaur egingo da bi txanda desberdinetan.

Lehenengoan, 11:00etan, 3. Kupoa I. taldearentzat, hau da, 35 urte baino gutxiagoko kide bateko edo bi kideko unitate familiarrentzat 31 etxebizitzaren zozketa egingo da. Gainontzeko kupoen eta taldeen zozketa, 12:30an egingo da.

Aurretik sarrera eskuratu ez dutenek, Manuel Lekuona kultur etxean lortu dezakete. Eskatzaileak NANA erakutsi beharko du; eskatzailea zozketa ezin bada joan, beste norbait bidali dezake eta eskatzailearen NANaren fotokopia eraman beharko du. •

KATEKESIA

Larunbatean lehenengo saioa

San Pedro parrokiako haur eta gurasoen katekesi saioak larunbata honetan hasten dira. Saioak larunbatean izango dira, urritik maiatzera, 12:00etan.

Mailaren arabera, banatuko dira haurrak, honela 1. mailakoek larunbata honetan izango dute bere lehenengo bilera eta honela, hilabeteko lehenengo larunbatean bilduko dira; 2. mailakoek hurrengo larunbatean dute hitzordua eta hurrengo hilabeteetan, bigarren larunbatean; 3. mailakoek urriaren 16an hasiko dute katekesia eta saioak hilabeteko hirugarren larunbatean izango dituzte; 4., 5. eta 6. mailakoek, azkenik, hilaren 23an dute bilera eta maiatzera arte, hilabeteko laugarren larunbatean izango dute dotrina.

Honetaz gain, hileko azken larunbatean haur eta gurasoei osparkizuna egingo da. •

ELIZKIZUNA

San Pedro elizako meza ETB-n

ETB kateko grabazio taldea San Pedro parrokiaren izango da urriko hiru larunbatetan, bihar, 9an eta 16an, 19:00etako meza grabatzen. Asteburu horietako igandean *Meza santua* saioan ikusi ahalko da Lasarte-Oriako parrokiako meza. •

LA ESPERANZA AUZO ELKARTEA

Ohizko bilera igandean

La Esperanza auzo elkarteak bere bazkide eta auzotarrak urriaren 3an, igandean, egingo den ohizko bilerarako deialdia egiten die. Lehenengo deialdia 10:00etan da eta bigarrena, berezia, 10:30ean.

Gai zerrenda honako hau da: aurreko bilerako akta onartu, urteko ekitaldiaren kudeaketaren balantzea, zuzendaritza-batzorde berria izendatzea eta eskaerak eta galderak. •

GAZTE KONZERTUAK

Latitud 43 taldearen pop-rocka gaur

Oporretako atsedendialdiaren ostean, Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegia musikaz beteko da berriro ere, Xpression Elkarte eta Lasarte-Oriako Gazteria sailak sinatutako akordia dela eta.

Gaurko hitzorduan, 20:00etan. *Latitud 43* taldearen pop eta rock estiloko abestiak entzuteko aukera izango dute hurbiltzen direnek.

Hurrengo saioan, urriaren 22an, *Wha Wha Buga Band* taldearen eskutik blues, funk eta fusion estiloak entzungo dira.



Pop eta rock doinuez beteko da kultur etxeko kafetegia *Latitud 43* taldearen eskutik.

Herriarentzat jaialdi garrantzitsua da Akordeoi Jaialdia eta nazioarte mailan ere izena lortu du. Horregatik, Udalak mantendu behar den jaialdia dela uste du.

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 2

11:00etan, Ostadar - Antiguoko (Infantil txikiak) Michelinen.
 12:30ean, Ostadar - Sporting de Herrera (Kadeteen Ohorezko maila) Michelinen.
 14:00etan, Ostadar - Idiazabal (I. Kadetea) Michelinen.
 15:30ean, Texas Lasartearra - Andoain-go Ontzerri (I. Erregionala) Michelinen.
 17:15ean, Ostadar - Mariño (Erregional Goren) Michelinen.

11:30ean, Añorga - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Rezola, Añorga.
 11:45ean, Beasain - Ostadar (Infantilen Ohorezko maila) Igartza, Beasain.
 15:30ean, Union Txiki - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Fanderia, Errenterian.
 15:30ean, Amara Berri - Ostadar (Emakumezkoen Liga) Martutene, Donostian.

Igandea 3

10:30ean, Ostadar - Euskalduna (I. Jubenila) Michelinen.

16:00ean, Hernani - Ostadar (I. Erregionala) Zubipe, Hernanin.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 1

HERRIKO TXAPELKETA
 Kirol guneko kantxan
 20:30ean, Izkiña-ISU Leihoak

Larunbata 2

17:30ean, Aldaz H.K. - Irish Pub She-

perd's Egintza (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantxan
 09:15ean, Ayete - Kalaberri Z
 10:15ean, Katakra - Viña del Mar
 11:15ean, Indaux - Oria Kristaldegia.
 12:15ean, Ainhua - Obelix
 13:15ean, Izarra - Epel
 15:00etan, Ilargi - Morrison's
 16:00etan, Semblante Andaluz - Illun

Igandea 3

11:00etan, ISU Leihoak - Garetxe Lazkao (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantxan
 10:00etan, IOB H.K. - Buenetxea
 11:00etan, Lekuona Mena - Naiban

PILOTA

Ostirala 1

18:30ean, Aurrera Saiaz - Intza (Eskuz binaka I. Kadetea) Bidegoianen.
 20:45ean, Murumendi - Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Beasainen.

Larunbata 2

16:15ean, Intza - Igelde (Eskuz binaka III. Kadetea) Michelinen.

Igandea 3

10:30ean, Ilunpe 2 - Intza (Eskuz binaka I. Seniorra) Frontoi txiki, Azpeitian.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 3

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Bianditzera egingo du irteera.



Asteburu honetan jokatu da Ostadarrek antolatzen duen herriko XXVIII. areto-futboleko lehenengo jardunaldia.

Baloia martxan jarriko da gaur kirol-guneko kantxan

Ostadarrek antolatzen duen herriko XXVIII. areto-futbol txapelketan hogei taldek parte hartuko dute

Gaur arratsaldean emango zaio hasiera Ostadar K.F.-k antolatzen duen herriko XXVIII. areto-futboleko txapelketari.

Aurreko zerbaki batean aurreratu genuen bezala, araudi eta antolakuntza berrikuntzak daude, baina hori ez da txapelketan dagoen berri bakarra.

Izan ere, ohiko taldez gain, sei talde berrik eman dute izena aurtengo denboraldirako, Semblante Andaluz, Kalaberri Z, Indaux, Katakra, Ayete eta Illun.

Eta iazko talde batzuk desagertu dira, hala nola, Tragoxka Puba, Biyona edo Goiz-Argi.

Gauzak honela, antolatzaileen aurreikuspenak bete

dira eta martxoaren 13ra arte iraungo duen lehenengo fase honetan, hogei talde dira lehian.

Txapelketa sistema

Sistemari dagokionez, talde guztien arteko liga jokatu dute itzuli batera eta sailkapeneko lehenengo zortziek lortuko dute bigarren fasera, play offetara iristea.

Beste guztiak, ligaxka eta kontsolazioko lehiaketa jokatuko dute.

Federatuek berdinketa

Aldaz H.K. eta ISU Leihoak areto futbol federatuko taldeek berdinketarekin hasi zuten denboraldia.

ISU Leihoak taldeko mutilek Donibane-Pari Berriren

aurka hirunako berdinketa lortu zuten.

Lasarteoriarrak nagusi izan ziren lehenengo zatian eta hiru goletako errenta lortu zuten.

Hala ere, bigarren ezin izan zuten emaitza mantendu eta Donibane taldeak hiru eginez, puntua utzi zuten etxean.

Nazional B mailako herriko taldeak, Aldazek ere emaitza bera lortu zuen Portugaleten Jarrileros taldearen aurka.

Oscar Garcieren mutilek joko kontrolatu zuten partida osoan zehar eta era errazean jokatu zuten. Defentsan ere lan ona egin zuen Aldazek nahiz eta emaitza hau guztia- ren isla ez izan. •

Kiroletako oharrak

Futboleko Porra

Ostadar K.F.-k antolatu duen futboleko porra asteburu honetan hasiko da. Horregatik, antolatzaileek gogora arazten dute, bihar, urriaren 2ko eguerdira arte bete eta utzi ahaliko direla tiketak tabernatan.

Jardunaldi bakoitzako saria egongo da, 60 euro eta Porrako lehenengo eta bigarren sailkatuek, 360 eta 180 eurotako sariak izango dituzte.

Era berean, hiru urdaiazpiko zozketatuko dira porrako partehartzaileen artean eta azken sailkatuak ere urdaiazpikoa izango du.

Buruntzaldea I.K.T.

Buruntzaldeko Igeriketa Kirol taldeko neska-mutilek hasi dituzte 2010-2011 denboraldia prestatzeko entrenamenduak Udako Kiroldegiko igerilekuan.

Arduradunek jakin arazi digutenez, denboraldi hasieran zehar taldean sartzeko aukera badago oraindik,

beraz inor interesaturik egonez gero, haiekin harremanetan jartzea besterik ez du.

Informazioa nahi duenak 696 506 673 telefono zenbakira deitu, Ruben, edo irailean zehar 18:00etatik 19:30era kiroldegian Borjagatik galdegain dezala.

Beltzak-Ostadar Errugby Eskola

Beltzak-Ostadar Errugby Eskoleko kideak Michelingo Kirol Gunean bilatzen dira igandero, 9:00etatik aurrera.

Eskolako arduradunek 2002ko abenduaren 31a baino lehen jaiotako haurrei deialdia egiten diete entrenamendura hurbildu eta kirol hau eza-gutzeko.

Eskolan izena emateko hiru aukera daude, bata Ostadarreko bulegoan, bestea 666 321 059 telefono zenbakian edo beltzakrt.com web orrialdean.

Gimnastikako aurrebenjaminak bihar hasiko dira lanean

LOKEko gimnastika ataleko aurrebenjaminetako neskek bihar hasiko dituzte entrenamenduak. Adin honetako neskek, larunbatetan izango dute saioa, 11:00etatik 12:00etara.

Beste mailen orduetgia honako hau da, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara; larunbatetan, benjaminak 12:00etatik 13:00etara eta beste mailak, 12:00etatik 14:00etara.

Izena emateko entrenamendu orduetan kiroldegira hurbildu edo 676 872 029 telefono zenbakira deitu behar du interesatuak. •



Gimnastikako ataleko txikiak bihar dute lehenengo saioa kiroldegian.

Egunero

Erakusketak

GOIZANE MENDIZABALEN paisaiaren argazkiak izango dira ikusgai. Jalgi kafe-antzekian, egun osoan zehar.



Larunbata, 2

Jaialdia

LASARTE-ORIAKO VII. AKORDEOI JAIALDIA ospatuko da larunbatean Zero Setteren eskutik. Jaialdian, Zero Sette orkestrarekin batera Paris-Moscou bikote frantziarra eta Accordion in Moder, Sabadellgo boskotea arituko dira. Manuel Lekuona Kulturetxean 19:30ean. BIETARA



Rock jaialdia bihar Andatza plazan

I. BAITA ROCK JAIALDIA ospatuko da Andatza Plazan. Egur-dian hasiko dira poteoarekin erdigunetik, ondoren babarrun-jana egongo da plazan bertan. 18:00etatik aurrera hainbat taldek hartuko dute parte jaialdian: Sutura, El trono del judas, UK Bill, R Aurka eta zehaztu gabeko talde bat.

LARUNBATEAN, HILAREN 2AN

Asteartea, 5

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Pello Añorgaren eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Manuel Lekuona Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etatik aurrera.

EUSKARAZ.

Osteguna, 7

Hitzaldia

HITZ EGIN DEZAGUN GALERAZ ETA DOLUAZ HAURREKIN ERE hitzaldia eskainiko du Josune Martiarena psikologo klinikoa 7 urtera arteko haurren guraso eta hezitzaileei zuzenduriko hitzaldien zikloen barruan Udaleren Sanitateko Departamentuak antolatuta. Kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ

Oharrak

Zitek-en ikasturte hasiera

Zitek akademian kurso berria hasi da. Klase partikularrak jasotzea interatzen bazaizu, leku daukazu. Informa zaitetz 943 36 31 06 telefonoan edo egoitzan bertan astelehenetik ostiralera 15:00- 19:00 artean.

Oztabide elkarte loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotari jakin arazten die eguberriko loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5) loteria partaidetzak dira hartu daitezkeenak. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakarrik duela elkartek.

Diru-laguntzen eskaerak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Enpleguak eta Kooperazioko Departamentuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten arakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die gaur, hilaren 1a, eta urriaren 24ra arte, irekiko dela sail honek eskaerak ohi dituen diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea.

Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:30era bitartean, eskatutako agiriekin batera, hau da, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.



Kilometroak Lezon

Ttakan Kultur Elkartek ez du autobusik antolatuta kilometrotara joateko zerbitzu publikoa bertaraino badagoelako. Euskotrenek Errenterira joateko orduerdi jarri ditu trenak egun osoan zehar, goizeko 7:29ean hasita ('29 eta '59) eta buelta berriz ('23 eta '53ean) gaueko 21:53ak arte. Gai nontzean Andoainetik Renferen tren zerbitzuarekin edo Lurraldearekin ere joan daiteke.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Eskubideen alde, debekuen eta murrizketen aurka irailaren 29an eta urriaren 2an kalera

Gobernuak gizarteko hainbat sektoreri egindako erasoen aurrean, ezin gara geldirik geratu, gure arteko mesfidantza justua edo gizarte eragile diren elkar-teak direla eta.

Langileen aurkako lan erreforma honekin, kausalitateak ezabatu nahi dituzte langileen kaleratzea errazteko, jubilazio adina luzatu, pentsioak murriztu, negoziaketa kolektiboa ezereztu, sindikatuen eta lantokietan aukeratutako milaka delegatu sindikalen papera zalantzan jarrita. Eta azkenik, laguntzak ezabatu nahi dituzte, langileek, gizarteko gehiengoak, krisiaren ondorioak pairatu dituzten gure lan eta bizi baldintzak txartuz; krisiaren eragile diren bankuek eta finantza espekulatzaileek bere aberastasuna handitzen duten bitartean.

Sindikatu desberdinek Greba orokorrerako deialdia egin dugu estatu osoan, Euskadin ere bai, irailaren 29rako, izan ere, ekainaren 29an egin-

dakoan ez baikenuen Gobernuaren politika erregresiboak atzera egitea lortu.

Bestalde, ekainaren 11n Bilbon eman zen manifestazio eskubidearen debekua, milaka pertsona haien giza eskubide, eskubide politiko eta zibilien alde, baita bizi eskubidearen alde ere, manifestatzea galarazi zuenak, erantzun bat merezi du, ideologia eta iritzi politikoak alde batera utzita, herritar guztiei dagokien eskubideen alde. Hitzordua urriaren 2an, arratsaldeko 17:00etan Bilbon. Hau, irailaren 29koarekin batera, gure eskubideen alde agertzeko beste aukera bat da.

Deialdi bat edo bestearen protagonistenganako mesfidantzak, ezin gaitu geratu, ezta deialdi batean gure indarrak jartzera eraman ere eta bestea aldatzea, gure eskubideen aurkako eraso globala izango ez balitz bezala.

Tamalez, irailaren 29ko greba orokorraren alde daudenean, urriaren 2koaz paso egiten dute eta alderantziz. Horrela galduta gaude, ez dugu itenbidirik. Indibidualismoak, desadostasunak eta sektarismoak arerioaren politikek aurrera egin dezaten dakar, gure eskubideak murriztuz, bihar beran-

du izan daiteke eta kekak alferrikakoak izango dira. Bizilagunaren eskubideak defendatzen ez dituenak, bere eskubideen murrizketa errazten du.

Horregatik, irailaren 29ko greba orokorrekin eta urriaren 2ko manifestazioarekin bat egin dezagun, gure eskubideen alde eta debekuen eta murrizketa sozialaren aurka.

ERREDAKZIOAK ITZULIA

Jesus Uzkudun Illaramendi

Sanmarko Mankomunitateak Denis Itxasoren kontrako kereila kriminala jarri du

Sanmarko Mankomunitateak Donostiako zinegotzi eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko lehendakariorde Denis Itxasoren kontrako kereila kriminala jarri du gaur.

Itxaso jaunak Sanmarko Mankomunitateko idazkariaren kontra egindako mehatxuek eragin dute Donostiako Instrukzio epaitegietan gaur goizean bertan kereila jarri izana.

Idazkariak 2010eko ekainean aurkeztu zuen txostenaren aurrean egin ziren

mehatxuak. Txostenak frogarazten zuen Sanmarko Mankomunitatearen estatutuak aldatu egin zirela -Sanmarkoko batzordeak onartu gabe-, eta mankomunitateko udalerriek ere onartu gabe-, horrela, estatutu aldaketa horrekin hondakinen aprobetxamendurako gaian mankomunitateari ez zegozkion funtzioak bereganatzen zituen, berez bere funtzioak eliminatora eta hondakinen tratamendurako tekniko sanitarioetarako soilik zirenean.

Aldaketa hauen ondorioz Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari ustez eman zitzaizkion lehendik Sanmarkorenak inoiz izan ez diren eskumenak.

Mankomunitatearenak izan ez badira balorizazioari buruzko eta birziklatzeari buruzko kompetentziak -Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen 1985/7 Legeak jasotzen duen 86.3 artikuluan oinarrituta, udalerrien hondakinen aprobetxamendurako moduak direnak- agerikoa da mankomunitateko udalerriek jarraitzen dutela izaten hondakinen aprobetxamendurako eskumenak, hala nola, konpostatzea, birziklatze modu gisa, eta balorizazio energetikoa.

Horrela, Partzuergoak ez du inolako zilegitasunik, adibidez, Sanmarko Mankomunitatearen lur eremuan sortzen diren hondakinak errausteko.

Sanmarko Mankomunitatearen estatutuaren norbaitek aldaketak eragin zituela -txostenen faltsutzea delitua izan litekeena- azaltzen duen Mankomunitateko idazkariaren txostenari gehitu zaio Denis Itxasok egin zuen idazkia, zeinak mankomunitateko idazkariari mehatxu egiten dion eta agintzen zaion benetan onartu ez den testu estatutario bat argitaratzea. Eta hirugarrenik, Donostiako udalak helegite bat aurkeztu du zeinetan faltsuak diren estatutu batzuk erabiltzen diren gaur egun indarrean diren estatutuak bailiran -txosten faltsu baten erabilera ilegimitimoa izan litekeena-. Helegite horretan mankomunitateari egotzen zaio aurreko estatutuak de facto bertan behera utzi izana.

Egoera honek eragin du Mankomunitateko arduradunek bertako zerbitzu juridikoei agindu izana hiru delitu hauen balizko komisiogatik kereila kriminala jarri araztea.

Sanmarko Mankomunitatea

Kubako "Guajirak" kultur etxean

- Dilcia Garcia emakume nekazarien ordezkariak hauen iraultza eta zailtasunak ekarri zituen
- Kubako biztanleen elikaduraren ziurtapena da hango nekazaritza berriaren helburu nagusi
- Askapenako zazpi kideen atxiloteta salatu zuen Lasarte-Oriako Komite Internazionalistak

Kuban elikadura subiranotasuna lortzeko ematen ari diren pausuei buruz bertako nekazari eta abeltzainen ordezkari den Dilcia Garciak asteazkenean kultur etxean hitzaldia eman aurretik, Lasarte Oriako Komite Internazionalistak goizean goiz poliziak Askapenako zazpi kide atxilotu zituela salatu eta "herrien arteko elkartasunaren aurkako eraso" dela nabarmendu zuen. Gainera, atxilotuak jasoko duten tratuari buruz bere kezka adierazi zuten bertan irakurritako oharren bidez. Ondoren, "Amorosa Guajira, ... pero diferente" dokumentala ikusi eta Garciak Kubako nekazarien egoera azaldu zuen.

Jon ALTUNA

Nekazaritzan ari diren emakumei buruzko dokumentala eskaini zen asteazken iluntzean Kultur Etxean, Mundu bat eta Lasarte-Oriako Komite Internazionalistek antolatutako hitzaldian.

1959ko iraultzako irudiek hasten den filmean, hamaika emakume nekazari edo *guajira* kubatarren testimonioak biltzen dira; euren ikuspegiaren bidez, Kubako nekazaritzaren hainbat ertz azaldu eta ematen ari diren aldaketak jaso dira.

Emakumeak gizartearen jokatzen duten paper berria, nekazaritzak kubatarren elikaduran hartu duen garrantzia, emakume batzuek jasandako tratu txarra, zikloi eta urakanek nekazariari eragindako kalte izugarriak (2008ko abuztuan 200.000 lagun geratu ziren etxetik gabe) edota nekazaritzan azken urteotan burutu dituzten aldaketak jaso dira besteak beste dokumentalean.

Iraultzaren ondoren, legez gizonetako eta emakumezkoak denetarako berdinaro badira ere, praktikan oraindik berdintasunera iristeko dauden oztopoak ageri dira bideoan. Ondoren horixe aitortu zuen Dilcia Garciak ere, datu batzuk aipatuz: nekazaritza

aroko teknikarien artean %35 dira emakumezkoak eta %18 daude zuzendaritzako karguetan. Beraz aldaketak eman dira baina oraindik asko dute hobetzeko.

Elikadura oinarri

Dilcia Garciak azalpen zabalagoak eman zituen ondoren. 90. hamarkadan aldaketa handia eman zen nekazaritzan kubatarren elikadurari begira jarri zelako. 1993-95 artean hirietako nekazaritza ere ugaldu egin zen hor ere elikagaiak lortzeko helburuarekin. Askoz ere produktu gehiago landatzen hasi ziren, produkzioa ugari egin zen, zabaldu eta dibertsifikatu, bertakoei elikagaien aldetik subiranotasun

Espainiako Poliziak Askapena erakundeko zazpi lagun atxilotu zituen asteazken goizean, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, ETA erakundearen nazioarteko sareko kide izatea leporatuta eta, ordu batzuk beranduago, Lasarte-Oriako Komite Internazionalistak, Kultur Etxeko hitzaldiaren aurretik irakurritako ohar baten bidez, elkartasuna adie-



ACPA, Kubako Abere-ekoizpenaren Elkargoko idazkari den Dilcia Garcia albataria, asteazkenean, Kultur Etxean.

edo segurtasuna emateko. Aldaketa horietan emakumeen partaidetza handia izan zen eta hori erakutsi nahi izan dute dokumentalaren egileek eta Dilcia Garcia berak.

Ondorengo eztabaidan, ikusleen galderei erantzunez, beste gai batzuk aztertu ziren, esaterako, etxeko lanen bana-

ketan oraindik Kuban beste leku askotan bezala berdintasuna lortzeko zailtasunak dituztela. Dilciaren ustez, gizonetako konturaten ari dira eta aitortzen dute pausak eman behar direla. "Arauk berdintasuna bultzatzen dute 1959ko iraultzatik, baina badiara oztopoak oraindik. Dena

den, jarreraz aldatzen ari dira gizonetakoak. Batzuek ausart eta zintzo aitortzen dute hori".

Nekazaritza ekologikoa ere jorratu zen hitzaldian. Dilcia Garciak azaldu zuenez halabeharrez da Kuban ekologikoa nekazaritza berri hau intsektizida edo ongari kimikoak garestiagoak direlako. •

Herrien arteko elkartasuna auzitan

razi zieten, atxilotetak salatu zituzten, eta atxilotuek jasoko duten tratua kezka adierazi zuten.

Hiru puntuko oharra Askapenako zazpi militante internazionalisten atxilotetaren aurkako salaketarekin hasten da. "Operazio hau Askapena erakundea eta herrien arteko elkartasuna kriminalizatze eraso dela nabarmendu nahi

dugu" dio Komite Internazionalistak oharrean.

Bigarren puntuan, Haritz Ganboa, Aritz Soto, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Walter Wendelin, Ruben Sanchez eta Itxaso Lekuona atxilotuek jasoko duten tratua dela eta arduratuta daudela adierazten dute: "Atxilotuek, inkomunikaturik igaroko dituzten datozen bost egune-

tan jaso dezaketen tratuagatik gure kezka adierazten dugu. Aldi berean, lege antiterroristak presoen oinarriko giza eskubideak zapaltzen dituela salatzen dugu".

Azkenik, oharren hirugarren eta azken puntuan, "atxilotuei, euren senitartekoei eta Askapenari elkartasuna" adierazten die Komite Internazionalistak. •



ANAIAK

JANTZI-DENDA

40 URTE ZUEKIN!



Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386